# BERRIGARA

113. zenbakia · JARDUN ELKARTEA, Bergara · 1993, ekainak 25

SANTUTXUKO LURSAILA DELA ETA, APEZPIKUTZA ETA UDALAREN ARTEKO TIRA-BIRAK

•

LAGA UMEEI JOLASTEN, NAZIOARTEKO HAURREN EGUNA OSPATU BERRI DA

•

KIROLAK

EUSEBIO II ETA TOKI-EDER FUTBITOKO LIGA ETA KOPA IRABAZLEAK

•

## TXAPELDUNAK







UZTAILEAN TXARTEL HAU EKARTZEAN, MINOLTA RIVA MINI KAMARA, 1.000 pzta. GUTXIAGO ORDAINDUIKO DUZU

GRUPO Image Center **KIÑU** GRUPO Image Center

**10. URTEURRENA!!**

**OSPA EZAZUE GUREKIN**

Barrenkale, 35 ☎ 76 58 05



UZTAILEAN TXARTEL HAU EKARTZEAN, CANON UC.10 BIDEO KAMARA, 5.000 pzta. MERKEAGO KOSTATUKO ZAIZU

Uztailak 4 IURRETA

# EUSKALDUNON JAIA 93



eman arnasa

EUSKALDUNON Egunkaria-ri

BERRIGARA

**BERRIGARA astekaria**
**Tfnoa. eta Faxa:** 76 03 97 Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

**Argitaratzailea:**
*Jardun* Elkartea. Masterreka, 13 Bergara. ☎ 76 08 19

**Babeslea:** Bergarako Udala.

**Erredakzioa**
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta Mikel Elkoroberezibar.

**Maketazioa:**
E. Azkarate eta E. Mendibil.

**Publizitatea eta harpidetzak:**
Alex Azkarate eta Edurne Arenaza. ☎ 76 03 97

**Erredakzio-kontseilua:**
Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien.

**Kolaboratzaileak:** J. A. Mikeo, Estepan Plazaola, M. A. Elkoroberezibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, M. Laskurain, N. Alzelai, A. Lete, J. A. Bengoa, M. Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta A. M. Goenaga.

**Argazki laborategia:**
Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.

**Komikia eta marrazkiak:** Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**
Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

**Banaketa :** Txantxangorri Taldea.

**Copyright:**
BERRIGARA

**Tirada:** 3.300 ale.

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

**Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailaren laguntza jaso du**



## PROTAGONISTAK

# UDA

San Juan gauak aurtengo udari ongi-etorria eman zion asteazkenean. Iaz urteko egunik euritsuenetakoa izan genuen San Juan bezpera eta aurtengo uda-sarrera ere ez da batere beroa izan, eurizaparrada galantak jasan bait ditugu astean zehar Bergaran.



Ohiturak agintzen duen bezala, gaitzak (aurten euria ere bai, beharbada) desagertarazteko asmoz sumeta ugari ikusi ahal izan genituen baserri eta auzo ezberdinetan (argazkian, mutiko batzuk Katabian prestaturikoa), haur eta nagusien gozamenerako. Bestetan baino gau freskoagoa izan genuen aurtengoa baina, hala ere, jendeak ez zuen hutsik egin eta kalera irten zuen urteko gaurik labur eta majikoenenan giroaz disfrutatzeko.

**San Juan gauarekin ongi-etorria eman zitzaion aurtengo udari**

## ESAN DUTE

"Eta gu geu gara, gure axolagabekeria, utzikeria, epelkeria, zurikeria eta ganorabekeriagatik, gure gaitzen erantzule eta errudun bakarrak. Ez naiz hauteskundeetaz ari, ez horri buruz bakarrik eta nagusiki behintzat. Mutrikuko Urazandi etxearen erauzketaz ari naiz. Jakingo duzue, XVI. mendeko etxe hori, Deba ibaiadar ertzean zegoena, bota berri dutela, bere balioa baztertuz eta historigile eta kulturgile hainbatek azaldutakoak mespretxatuz"

**ENEKO OREGI**
EGIN

•

"Elgetako ereserkia herrikoia izateko sortu dugu, edozein ekitalditan elgetar guztiek abestu ahal dezaten"

**VALENTIN MOÑUX**
EUSKADI IRRATIA

•

## ITURRI ONETIK

### Formula 3 bat Bergaran prestatu

Bergarako lantegi batean prestaturiko Formula 3 kotxe bat Espainiako Txapelketan parte hartzen ari da. Piloto frantses batek gidatuta, kotxe honek txapelketako lehen lasterketan parte hartu du dagoeneko. Ez zen emaitza onik lortu baina gauzak hobetzeko aukera dago geratzen diren 5 karreretan (Bartzelona, Madril, Alicante, Albacete eta Jerezen). Kotxeak, 140 zaldiko potentziarekin, 180-200 km/orduko abiadura hartzen du.

Atseden zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

EZPELETA etxea
Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak
Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA
elektragintza
✓ Motorren bobinak eta
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48



**ETERNAMENTE JOVEN**
Ostirala: 22.30.
Larunbata:
17.00, 19.30 eta 22.30.
Igandea:
17.00, 19.30 eta 22.15.
Astelehena: 19.30

## Zinea

▼▼ **Mel Gibson** eta **Jamie Lee Curtis** aktore ezagunak ditugu komedia honen erreparto buruan. *Daniel Mc Cormick* (Mel Gibson) abioi pilotoak orain 50 urte esperimentu batetan parte hartu zuen. Hortik *"bueltan"*, guztia erabat aldatuta aurkituko du.

▼▼ Igandean, ekainak 27, Deba bailarako talde ekolojistek antolatutako **Bizikleta Martxa Debarā** egingo da. Bergarako konzentrazioa 10.45etan egingo da Plazan eta Debara ordubata aldera iritsiko dira partaideak.



Aurten bizikleta martxa honen XV. edizioa egingo da.

## Erakusketak

▼ **Benita Gallastegiren** *Euskal Herriko paisajeak* izenburuko margo erakusketa Nahikari tabernan.

## Farmaziak

▼ **Larunbata 26:**
Guallar/Azkoaga.
▼ **Igandea 27:**
Guallar/Español.
▼ **Astelehena 28:**
Estella/Corcuera.
▼ **Asteartea 29:**
Mozos/Irizar.
▼ **Asteazkena 30:**
Camacho/Amezua.
▼ **Osteguna 1:**
Puy.
▼ **Ostirala 2:**
Guallar.

## Ogia

▼ **Igandea 27:** Bolintxo.

GISASOLA BURDINAKI DENDA
"Erratzu"
Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

Iturkintz Berri
Amillaga 1
(B pabiloia)
BERGARA
INSTALAZIOAK:
Iturkintza
Berogintza
Gasa
☎ 76 28 04

ARREGUI, E.M.
AROZTEGIA
• AROZLAN MEKANIKOAK
• SUKALDEKO ARMAIRUAK
• HORMA ARMAIRUAK
• ATEAK, etab.
• TARIMAK-PARKETAK
• NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
• PVCzko LEIHOAK
Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

# Musika

**▼ Udal Musika Bandak** kontzertua emango du San Pedron Meza Nagusiaren ostean.

**▼ Musika Eskolako** ikasturte amaierako kontzertua asteazkenean, ekainak 30, arratsaldeko 7etan Zabalotegiko aretoan.

**▼ Elgetako Ereserkiaren Aurkezpen Kontzertua** ostiralean, uztailak 2, gaueko 10.30etan Elgetako Frontoian. Bertako Ozkarbi abesbatza, Bergarako Orfeoia eta Bergarako Orkesta Sinfonikoak hartuko dute parte.

# Kirolak

**▼ Txirrindularitza:**

• *III. San Martzial Saria* (lehen urteko kadeteak). **Larunbatean** 16.30etan Ibargarain irteera eta helmuga (17.45ak aldera), txirrindulariek 47 Km. bete ondoren.

• Antzuolako Kalebarrengo jaietako egitarauaren barne, larunbatean, ekainak 26, Mendi Bizikleta lasterketa herrikoia goizeko 10etatik aurrera.

# Aukeran

**▼▼ Herri Arteko Pelota Txapelketako finala** jokatuko da igandean Bergaran goizeko 10.30etatik aurrera. Aurrez aurre Usurbil eta Amezketako taldeak izango dira eta, dudarik ez, giro polita izango da Bergarako Frontoian. Infantil, jubenil eta senior mailako partiduak jokatu ondoren ikusiko dugu ea Usurbilek iaz lortutako txapelari eusten dion ala Amezketak adituen pronostikoak betetzen dituen.





Lehen urteko kadeteen III. San Martzial Sario jokatuko da larunbatean.

TABERNA ZAHARRA

*Jatetxea*

**Bazkariak eta afariak**

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR

AGENTZIA:
J. ELKORO
Ibargarai 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

ZURICH
VITA
UNIBER
CAUDAL
HISPANA
ZURICH TALDEA ASEGURUAK

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

### Futbola maite dugulako

Futbola maite dugulako izaten gara astero-astero Ipintzan, iaz moduan, aurten ere antolatu den Nagusiendako Futbol Txapelketa ikusten. Eta benetan primeran pasatzen dugu. Oso idea ona iruditzen zaigu horrelako txapelketak herrian antolatzea. Urtean zehar futbito txapelketa izan da eta bertan jokatzeko aukera izan dugu 200dik gora bergararrek. Orain, futbito txapelketarekin batera, federatu mailako txapelketak amaitu direnean, federatu eta federatu ez diren beste bergarar askok Ipintzako txapelketa honetan jokatu eta partiduak ikusteko aukera dugu.

Hara hurbiltzen direnek maila haundiko partiduak ikusteko aukera izaten dute eta benetan primeran igarotzen dute eta dugu.

Ipintzara astero-astero hurbiltzen garelako idea bat luzatu nahi diegu antolatzaileei. Ipintza ondo egonda ere, Agorrosin askoz ere politagoa da jokatzeko aukera dutenentzat eta baita partiduak ikustea nahi dutenentzat ere. Horregatik, zera eskatuko genieke antolatzaileei edota Bergara Kirol Elkarteko buruei. Txapelketako azken partiduak (besterik ez bada finala) Agorrosinen jokatu daitezela. Agorrosin nola dagoen kontutan hartuta eta udan gaudenez, ez dugu uste kalte haundiegirik egingo dionik partidu pare bat jokatzeak.

*Bergarako futbolzale talde bat*

### Barruko eta kanpoko pizinak

Lerro hauetatik zera eskatu nahi diot pizinetako arduradunari: udan ere barruko pizinak zabalik lagatzeko. Goizeko lehen orduetan tenperatura ez da ur hotzean sartzeko oso atsegina eta horrelakoetan benetan asko eskertzen da barruko berotasuna, batez ere pertsona edadetuak garela eta ordu libre asko ez daukagula kontutan hartuta.

Ez dut uste asko kostatzen danik biak zabalita edukitzea eta gainera, eguraldia txarra denean, ba barrukoa aprobetxatu daiteke.

Eta beste kejatxo bat ere badaukat: lehengo urtean eskura zeudan hamakak orain berdegunetik nahiko urrun daude eta pixu dexente eraman behar dugu 30 bat metrotan. Zergatik? Ez al zen erosoagoa joan zen urtean bezala?

Eta bueno, bestela zoriondu pizinetako arduradunak, aurten beste urtetan baino lehenago zabaldu direlako. Guztia txukun dago eta gustora ematen du egun eguzkitsuetan bertan egon eta gero bainutxo bat hartzea lagunekin. Gainera pasiatzeko aukera dago eta hankak asko eskertzen dute ondorengo bainua. ea eguraldiak uda osoan zehar laguntzen duen. Ni behintzat plaian baino gustorago nago Bergarako pizinetan.

*Carmen Perez*

### Zuzenketa

BERRIGARAko 109. zenbakian, Balentin Gabilondok bidalitako kartaren bigarren parrafoko 2. lerroan honako hau jarri beharko luke: "Orain dela 3 hilabete Italian Mendi Nekazaritzako bidai batean izan zen, orain Israelen beste aste bat pasa du, Mendi Nekazaritzako bidaia zela eta". Gure barkamenak Balentin Gabilondori akats horrengatik.

## Tiiira ba!

Josu Okina



### Pakearen alde

*Bergararrak Pakearen Alde* kolektiboaren deiari erantzunez, 75 bat lagunek Madrilgo atentuaren kontrako kontzentrazioa egin zuten astearte arratsaldean Fraiskozurin. Era berean, dei egiten diete pakearekin sentsibilizatutako guztiei atentatuen eraginez hildakoren bat gertatzen den ondorengo egunean 20etatik 20.15etara Fraiskozuriko kontzentrazioetan parte hartzeko.

### IV. Herri Olinpiadak

Larunbatean, eguerdiko 12etan, IV. Herri Olinpiaden antolaketan parte hartu nahi dutenen bilera egingo da Kultur Etxean.

### Eskubaloilari gazteak

Amaia Samaniego eta Bihotz Beristain eskubaloi jokalari gazteak bihar Asturiasen amaituko den Estatuko Eskola Arteko Txapelketan dira. Uztailaren 18tik 24ra Lleidan egingo den Estatu mailako kontzentrazio batean parte hartuko dute.

# Santutxuko mantenimenduari utzi egingo dio Bergarako Udalak



Artxiboko argazkian, udal langileak Santutxun mugarriak jartzen.

Asteazkenean Victoriano Gallastegi alkateak pasa den ekainaren 14an Santutxun gertatutakoaren berri eman zuen prentsaurrean. Alkatearen arabera, Bergarako udal langileak Diputazioak emandako mahia, ume-joku, etab.ak jartzen hasi zirenean, Xabier Zubizarreta Elosuko apaizak eta Balentin Gabilondok, berehala guzti haiek kentzeko eta gehiago Santutxuko zelaietara ez inguratzeko esan zieten udal langileei, lurzoruaren (2.840 m2) jabea Apezpikutza zela argudiatuz. Udal lantaldeak eta Joseba Aizpurua nekazal teknikariak gauzak utzi eta Bergararuntz jeitsi behar izan zuten; argibidean jasotzen denez, *"Elosuko bi auzotarrek erabili zituzten mehatxu eta barrabeskeriak entzun ondoren"*.

Lursailaren dokumentuak aztertu ondoren, Udalak baieztatu egin zuen Apespikutzarena dela, 1868ko agiri batetan jasotzen den moduan, orduko zenbait auzokidek elizari eman bait zioten lursaila.

Horrela, alkateak horren jakinean jarri nahi ditu herritarrak, jabego pribatua dela eta horren mantenimenduari berehala utziko zaiola: *"17-18 urtetan gure ardurapean egon ondoren, orain besteren bat arduratu beharko da"*.

#### Zubizarretaren erantzuna

Xabier Zubizarretak, berriz, Elosu eta Bergarako Udalaren arteko tirabira aspalditik datorrela adierazi dio BERRIGARAri. Bere esanetan, *"pasa den martxoaren 23an idatzi bat bidali genion alkateari Elosuko kanposanturako bidean, Parrokiko terrenutan, argindarra batere baimenik gabe jarri zutelako. Parrokiko dokumentuak ez zituzten aztertu eta hanka-sartzea nabaria da. Udalari edozein obra egiteko baimena eskatu behar zaion moduan, beraiek ere pausu guztiak bete beharko lituzkete beste norbaiten terrenotan sartzean"*.

Bergarako Artzipresteak gogoratzen duen bezala, *"bere egunean, Parrokiak mahai batzuk jartzeko baimena eman zuela baina horrek ez du esan nahi Santutxun nahi dutena egin dezaketela. Lehen hitzezko akordio bat izan bazen, prest nago bertan parte hartu zutenek berau erredaktatzeko"*.

Azkenik, Xabier Zubizarretak barkamenak eskatu nahi dizkio udal nekazal teknikariari ekainaren 14ean bera ohiukatzeagatik.

MEMESA
IRIMO
SKF
Arrasate 79 42 22 Artxabaleta

## Kalebarrengo jaiak Antzuolan

Antzuolako Kalebarrengo jaiak ospatuko dira astebukaeran: ostiralean, 22.15etan, bertsolari gazteen saioa egongo da; larunbatean, mendi bizikleta herrikoia 10etan, karate saioa 11etan, salda 11.30etan, dultzaineroak 12.30etan, haurrentzako jokoak 15.30etan, buruhaundiak 17.30etan, krosa 18.30etan, arbola jasotzea 19.45etan, auzo afaria 21.00etan, erromeria Hator taldearekin 22.30etan, sua gauerdian eta ondoren Sagar dantza. Igandean, Dantzari Txiki Eguna izango da; goizean kalejira, meza eta dantza saioak egongo dira, 13.30etan bazkaria eta 5etan dantza saioa Plazan. Bukatzeko, erromeria Gozategi anai-arrebekin.

## JARDUNen deia maratoilariei

JARDUN Elkarteak dei egiten die datorren urriaren 21ean Donostiako maratoia korritzeko asmoa duten bergararrei, uztailaren 1ean arratsaldeko 8etan UNEDeko arteoan egingo den bileran parte hartzeko.



Bideoaren errealizazioan Taun-Taunen inguruko taldeak hartuko du parte.

## Austin FX-4a martxan

### *Taun-Taunen bideoa grabatzen hasi zen astelehenean*

Astelehenean hasi zen grabatzen Infernukua tabernan Taun-Taun bergarar txontxongilo taldearen *Austin FX-4* (marka horretako kotxe batek ere protagonismoa izango du) izenburuko bideoa. Bideo honek 8-10 minutuko iraupena izango du eta, Taun-Taunen txontxongilo ezagunenez gain (*Bi kate* eta *Taun-Taun Show* antzeslanetakoak batipat), Karlos Odriozola donostiarra izango da aktore nagusia. Bideo honen errealizazioaz *Rellenos y Tostones de Bergara* izeneko kolektiboa arduratuko da eta aurkezpena iraila aldera Bergaran egingo da.

Istorioa, esan bezala, taberna batetan kokatzen da: han *autostop*a egiten ari zen arlote batek (Karlos Odriozola) txontxongiloekin topo egingo du, beren eskutik mundu ezezagun eta majikoan murgilduz. Taun- Tauneko kideek adierazi digutenez, astebukaera honetan grabazio amaitu eta jarraian kortoa editatzeari ekingo diote. Aurkezpena egin ondoren, laburmetraien hainbat jaialditan parte hartzeko asmoa dago.

INGELESA eta FRANTSESA

UDAKO IKASTARO INTENTSIBOAK

Ekainaren 28tik
Uztailaren 16ra

Astelehenetik ostiralera
Goizez edo arratsaldez





BERGARA

INFORMAZIOA:
Bergarako UNED
(3. pisua)
☎ 76 06 87

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

ETXAGI
Jatetxea
Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak
Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12



Gutierrez, Zabaleta, Garitano, Muniategi eta Garmendia ostiraleko batzarrean.

# Bergara K.E.ren Batzar Orokorra

## *Iñigo Zaitegik Alex Garitanoren erreleboa hartu zuen*

Bergara K.E.k bere urteroko batzarra egin zuen ostiralean Kultur Etxean. Lehenbizi Alex Garitano eta Josetxo Zabaleta presidente eta diruzainak elkartearen egoera ekonomikoa eta urtean zehar izandako diru sarrera eta diru irteeren kontu eman zuten, elkartearen egoera ekonomikoa nahiko ona dela baina Udalak emango dien diru laguntzaren zai daudela adieraziz eta Bergara K.E.k mugitzen duen gazte kopurua (1.000 inguru) gogoratuz. Era berean, Garitanok eskerrak eman zizkion publikoki Jose Luis Beitia futbol talde nagusiko entrenatzaileari denboraldi honetan egindako lan bikainagatik.

Jarraian elkarteko sailetako arduradunek ere -Javi Garmendia (pelota), Josetxo Muniategi (eskubaloia) eta Luis Mari Gutierrez (pelota)- hitza hartu eta beren balantzea egin zuten bertan bildutako 20 bat bazkideren aurrean. Bazkide kuota 500 pta.tan garestitzea onartu zen eta, azkenik, Iñigo Zaitegi (kandidatura bakarra) elkarteko presidente berri izendatu zuten datozen 4 urtetarako.

## Jubilatuak San Martzialera

Bergarako Jubilatuen Egoitzak ekainaren 30ean ospatuko du San Martzial eguna. Honako programa iragarri dute jubilatuek: 10.30etan irteera urbanoan Santa Marinatik, Jubilatuetako Abesbatzak lagundutako meza 12.30etan, salda eta txorizoa jarraian eta ordubietan *pic-nic janaria* ogibitartekoekin. Ondoren Elgetako trikitilariekin erromeria eta sei t´erdietan urbanoan jeitsiera. Izena emateko azken eguna ekainaren 26a izango da (500 pta.). Bestalde, argazki zaharren erakusketa nahi da Jubilatuetan uztailean eta horretarako argazki zaharrak dituzten bazkideen kolaborazioa eskatu nahi da.

## Argazki lehiaketa Arrasaten

Arrasateko Gazte Zerbitzuak *Gazteak martxan* izeneko argazki lehiaketa iragarri du. Bi kategoria izango dira; Deba Garaiko 14-20 urte bitarteko gazteentzat lehena eta 21-35 bitarteko edozeinentzat bigarrena. Lanak aurkezteko epea urriaren 29an amaituko da.

KIZKUR
Ileapaindegia
Solariuma
Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

LARREA
TABERNA
Kale Barren 17
ANTZUOLA



POL - POL TABERNA
Tfnoa: 76 07 78

DEPORTIVO TABERNA
Tfnoa: 76 01 51

## Azkarate anaiak irabazle

Antzuolako Azkarate anaiek irabazi zuten Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako III. Pala Txapelketa, igandean Osintxuko pelotalekuan beren herrikideak diren Lizarralde-Garmendiari 35 eta 28 irabazi ondoren.

## San Pedro eta San Martzial

Udaleko Jai Batzordeak San Pedro eta San Martzialetarako hainbat ekitaldi prestatu ditu. Igandean 11.30etan Udal Musika Bandak alaitutako kalejira egingo da eta 12.30etan Kontzertua San Pedron. Asteazkenean 7.30etan San Martzialera igoera letania errezatuz eta ondoren meza San Martzialen.

# Elgetako himnoaren aurkezpen kontzertua egingo da ostiralean


Datorren urtean ereserkiarekin batera Elgetako kanta zaharrak bilduko dituen zinta argitaratzeko asmoa dagoela esan zuen Elgetako alkateak.

Asteazkenean aurkeztu zen Elgetako Udaletxeko Pleno Aretoan Elgetako ereserkia. Aurkezpen ekitaldian Patxi Basauri Elgetako alkatea, Kontxi Ibarluzea kultura zinegotzia, Alfredo González Chirlaque himnoaren musikaren konpositorea eta Valen Moñux letraren egilea izan ziren.

Patxi Basaurik, Alfredo Gonzalez eta Valen Moñuxek ezeren truke egindako lana eskertu ondoren, elgetar guztien himnoa izateko asmoarekin sortua izan dela adierazi zuen.

Alfredo Gonzalezek bere aldetik, hasiera-hasieratik zortziko bat egitea bururatu zitzaiola esan zuen: *"orkesta eta koroarekin kantatzeko egin bada ere, herrian errotua dagoen erritmoa erabili nahi izan dut, eta edozein tokitan kantatu ahal izateko moldatu daiteke"*, gehitu zuen.

Ereserkiaren hitzak egin dituen Valen Moñuxek, bestalde, uso zuriaren sinboloa erabili nahi izan duela adierazi zuen: *"alde batetik, Elgetako harmarrian agertzen delako, bestetik, herri askotako plazetan izaten direlako eta baita pakearen sinbolo delako ere: Elgetako historian gerrak, bai Gerra Zibilak eta baita Gerra Karlistek ere, izan duten pisua kontutan izan ditut"*.

Esan dezagun, Elgetako himnoa jasotzen duten 50 bat zinta argitaratu direla eta Bergarako Orkesta Sinfonikoa eta Bergarako Orfeoiak grabatu dutela Fran Iturberen gidaritzapean.

Ereserkiaren aurkezpen kontzertua ostiralean izango da gaueko 10.30etan Elgetako frontoian. Bergarako Orfeoia, Orkesta Sinfonikoa eta Elgetako Oskarbi abesbatzak saio bana eskainiko dute eta bukatzeko himnoa interpretatuko dute guztiek bat eginik.

ARIZNOA
Taberna
• Gosariak •
• Pintxo bero eta hotzak •
Irala 1, BERGARA ☎ 76 52 30

JOSEFINA
• Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
• Masajeak, solariuma, pedikura, estetika...
Espaloia 4, ☎ 76 35 38

BOLINTXO
Okindegia
San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4, EIBAR
☎ 79 63 42 ARRASATE

MUGICA
Goxotegia
pastelak, errellenoak, tostoiak, tartak...
Artekale, 3
☎ 76 10 34

ZABALETA ERROTULOAK
Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparatek...
Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

# BERGARAKO KASINOA



Bergarako kasinoko bazkideak.

Bergarako "Casino"a 1922. urtean sortu zen jende talde baten iniziatibaz. Elkartearen helburua denpora pasa zen. Jendea elkartu eta denbora gustora pasatzeko ideiarekin, hain zuzen.

Garai hartan hainbat herritan zeuden kasinoak. Ez zen Donostiako kasinoaren bezalakoa, baina Tolosakoarekin konpara zitekeen.

Casinoan 45 bazkide dira. Bazkide hauetatik 10-15 emakumezkoak. Beraz, emakumeak onartzen dira bazkide bezala elkarte honetan. Bazkide guzti hauen batazbesteko adina 40-45 urtetakoa da. Gaur egunean dauden bazkide antzinakoenak Movilla eta Angel Jauregi dira.

Lehenago 140 inguru bazkide izatera iritsi ziren Casinoan, baina polikipoliki hori jeisten joan da gaur eguneko kopurura iritsi arte. Honek elkartearentzat bere ondorioak dakartza, noski, bat sarrerarena esate baterako. Miguel Angel Muela eta Edurnek aipatu digutenez, Casinoan bazkide izateko ez dago sarrerarik ordaindu beharrik.

Casino elkarteak badu berezitasun bat: Edurne eta Martin daude elkartearen ardura nolabait eramaten. Beraien ordutegia dute, eta elkartea garbitu, berogailuak piztu... eta horrelako lanak egiten dituzte. Honetaz gain, bazkide batek afari edo meriendaren bat badu, aukera du Edurne eta Martinek gertatzeko.

Aipatu digutenez, Casinoa elitista xamarra ere izan zen. Ez zen edozein sartzen bazkide. Egoera ekonomiko eta gizartean zeneukan lekua hartzen zen kontutan bazkidetzat onartua izateko edo ez. Orduan bazkide zirenak, medikuak, abokatuak, norberaren negozioak zituztenak, injineroak... eta horrelakoak izaten ziren. Baina argi utzi nahi izan digute gaur egun egoera hori aldatuta dagoela, eta Casinoa beste edozein elkarte bezalakoa dela.

Elkarteak baditu bere berezitasunak, dituen 230 metro karratuak eta bi sukaldeak adibidez, baina esan duten bezala aldatu nahiko lukete. Bazkideek elkartearen itxura aldatu nahi dute. Casino elkarteak ez du elkartearen urteko egun bat, hamabi baizik. Elkartea egin zenean osteguna tokatu zen zabaltze eguna. Hori dela eta hilabeteroko bigarren ostegunean bazkide guztiak elkartu eta afari bat egiten dute.

***Ainhoa Lete***

## FITXA TEKNIKOA

**SORTU:** 1922.ean.
**BAZKIDEAK:** 45.
**HELBIDEA:** Komenio kalea 4-1.
**PRESIDENTEA:** Jesus Berroia.
**ELKARTEAREN EGUNA:**
Hileroko bigarren osteguna.
**URTEKO KUOTA:** 25.000 pzta.

LARRAÑAGA eta ZUBIA
**Banatzaileak**
Errioxako ardoak, olioa, esnea, lejiak...
Martokua 32, tfnoa: 764594

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

SURPE
**Taberna**
Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

SANTOS IRRATI-TB
ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA
Zuek ***Sukalde altzarien erakusketa***
Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

- **Ekainaren 18an, 423 bazkide.**
- **Ekainaren 25an, 440 bazkide.**
- **Aste honetan 17 bazkide gehiago.**



# Nora begira zaude?
# JARDUN gurekin.

Jardun

IZENA.........................................

ABIZENAK....................................

HELBIDEA....................................

HERRIA.........................................

ADINA..........................................

TELEFONOA.................................

BAZKIDE KUOTA: **4.000** pzta. URTEAN. (IKASLEEK **500** pzta.)

MOZTU ETA BIDALI JARDUN ELKARTERA (MASTERREKA 13. ☎ 76 08 19)

# Muruamendiaraz-Agirre Euskadiko Dantza Askatuko txapeldunak

**Amaia Agirre eta Edu Muruamendiaraz duela bi urtetatik ari dira elkarrekin dantzatzen. Pasa den igandean Seguran jokatutako Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketan, lehen saria, aurreneko aldiz, gure herrira ekartzea lortu zuten.**




Edu eta Amaiak txapelketa irabazteaz gain jantzi onenaren saria ere eraman zuten.

## "Ez genuen irabaztea espero eta are gutxiago bigarrenei hainbesteko aldea ateratzea"

**- Zela izan zen pasa den igandeko txapelketa?**

- Aurreko txapelketetan txistuarekin egiten zen Fandangoa eta Arin-Arina, eta ondoren finalerako, soinuarekin, hamar bikote sailkatzen ziren. Aurten gauzak aldatu egin dira eta bikote guztiak egin dugu, txistuz eta soinuz dantzan. Hasieran oso urduri geunden, ez bait genuen irabaztea espero. Noski, guk irabaztea nahi genuen, baina bagenekien, bigarren gelditu direnak, Azkoitiarrak, gogor zebiltzala eta eurek irabaziz gero, Nestor Basterretxea eskultura, 3 aldiz jarraian irabazten dutenentzat, beraien esku geldituko litzateke eta horregatik uste genuen beraiei emango zietela txapelketa. Gainera ez ginen oso gustora hasi, bigarren postuan dantzatzea tokatu zitzaigun eta hotz-hotzean irtetzea ez da oso komenigarria.

**- Baina txapelketa bukatu ondoren, bigarren gelditu zirenei puntu asko atera zenieten...**

- Bai 17, ez dakit zela izan zen hori, guk gure artean komentatzen genuen irabaztekotan gehienez 2 puntu edo aterako geniela, eta puntuazioa ikusi ondoren;... ba, bueno ondo egingo genuen dantzan...

**- Irabazi eta gero zer pentsatu zenuten edo zerk harritu zintuzten?**

- Lehenago esan dizugun moduan ez genuen espero irabaztea eta bukatu ondoren emozioz beteriko momentuak bizi izan genituen. Gainera berehala horko kopa, makila, trofeoa, dirua, urrezko plaka eta Europara bidaia bat, trofeoa herriko Udaletxean lagatzeko asmoa daukagu Bergararrei eskeintzeko asmoz.

**- Zuek duela bi urtetatik hona ari zarete elkarrekin dantzan, baina lehenago beste bikote batzuekin aritu zinaten, ez?**

-Amaia: Bai, ni txikitatik nabil dantzan, 7 urtetatik ari naiz mundu honetan eta beste bikote batzurekin aritu naiz, Edurekin hasi baino lehen Dani Aspiazurekin aritzen nintzen dantzan, baina honek utzi eta Eduk nire antzera egiten zuenez biok batera hasi ginen dantzan.

- Edu: Nik umetan Jaione Aranarekin dantzan egiten nuen eta gero Edurne Arzelusekin ere dantzatu nuen, honekin Seguran 3. postua lortu nuelarik. Orain Donostian bizi naiz eta han "Eskola" dantza taldean beste dantza batzuk ere egiten ditut, hor batez ere aurreskua landu dut eta txapelketetan ere aritzen naiz.


REMENTERIA
**Altzariak**
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak
Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29



KORTA-ZAR
Txokolategia
*Pintxo eta ogibitartekoen espezialitatea*
HEMENDIK AURRERA OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK
Barrenlale 16, ☎ 76 20 62

**Gure bizitzan zehar denok izan ditugu 10 urte, baina belaunaldi bakoitzak bere joku eta baliabide ezberdinak izan ditu aisialdia betetzeko. Hori baieztatzeko, 70 urteko jubilatu talde batekin eta 30 urte inguruko beste talde batekin izan gara, eta azkenik, 10-14 urteko haurrek denbora librea nola betetzen duten taulan irakurtzeko aukera duzue.**



Lehen kanpoan jokatzen zuten. Orain, berriz, barruan. Jubilatuetan ateratako argazkia.

# Utzi umeei jolasten

## *Haurren Nazioarteko Eguna ospatu berri da*

Gure zaharrek ez zuten denbora askorik izaten jolasean egiteko, bakarrik igandea izaten zen beraientzat jai eguna *"orduan astean zehar lanean aritzen ginen, zapatuan lana egin behar izaten zen domekia etortzeko desiatzen izaten ginen, irratirik ere ez genuen, bakarrik aberatsek zeukaten irratia"*.

Igandea heltzen zenean 70 urteko andra-gizon taldeak garbi dauka oraindik zertan jokatzen zuten, gizonen artean jokurik preziatuenak txakarrika, txorromorroka, bale-baleka, txilkileronkalderona, kàskara jokua ziren, gainera dirurik egon ez arren *"paretara botatzen genituen txakur haundiak eta bere txanpona gehien arrimatzen zuenak bere diru guztia batzen zuen. Orduan txakur haundia dirua zen eta!"* adierazi digute.

Lehendik hona gauzak asko aldatu dira eta hauek argi dute hori *"orain beste modu batean dibertitzen dira, lehenagokoak modu haretan dibertitzen ginen ez geneukalako ezer gehiago, baina dibertitu oraingoen berdin edo gehiago"*.

Orain arte gizonek hitz egin dute, baina emakumeek bazuten euren joku propioak ere bazituzten *"gu briskan, hogeitamaikan, soka saltoan, tortoloska egiten genuen, baina gure "jostailurik" garrantzitsuena umeak zaintzearena zen, guk benetako panpinekin jolas egiten genuen, ez geneukan dirurik panpinak egiteko eta noiz behinka trapuzkoak egiten genituen"*.

Baina irudimenak askotan diru falta betetzen du eta gaztetan normala zen "patinadoretara" jokatzea *"fabrikatik errodamentu batzuk hartu eta makila bati lotuz go-*

Garnish
Bitxitegia
% 25eko deskontuak artikulo guztietan
San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak
Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

IGARO
✔ Kosmetika eta oparigaiak
✔ Eder gela
✔ Bio Solariunma
Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

*tiberak egiten genituen eta handik hona ibiltzen ginen bueltaka".*

Badirudi kirola egitea gaurko gauza dela, baina hauek ere kirola egiten zuten *"futbolean aritzen ginen, ez genuen futbol zelairik baina orain Mizpirualde dagoen tokian jotake aritzen ginen futbolean; pelotan ere edozein aterpetan jokatzen genuen, pelotia artilezkoa izaten zen eta baloia trapuzkoa; errekan ere denbora asko pasatzen genuen peskan, baino bat hartzen ea..".*

Beraien haurtzaroan, orain 70 urte dituzten jubilatu hauek, ia diru barik bizi ziren *"urtean zehar ez genuen ezer gastatzen, diru guztia burdinezko itsulapiko batean gordetzen genuen, gero jaietan barraketan gastatzeko edo gabonetan kartetan jokatzeko".*

Umetako jokoak gaurko gazteei erakusteko asmoa adierazi dute, jubilatuen egoitzako zuzendaritza batzordeak *"basierako asmoa eskoletara aintzinako joko hauek erakustera joatea zen, baina gero hobeto pentsatu genuen eta hortan geratu da, umeek gutaz farre egingo du eta".*

Auzoen arteko borrokek inportantzia handia zuten garai hartan *"gure denboran Arruriagakoak ziren gogorrak, San Prudentzion ere sekulako borrokak izaten ziren oñatiarren eta arrasatearren artean, borrokak kontzertatuta zeuden, horrela izaten zen: hi, gaur borrokan ein biaju... eta gero jata egurra!".*

## Futbola denbora pasa nagusia

Futbola zen orain 30 urte baino gehiago duten mutilen denborapasa nagusia. Euren gurasoen antzera kalean pasatzen zuten denborarik gehiena, baina oraindik ere diru askorik gabe *"gu beti ibiltzen ginen kalean zehar, bale-baleka eta horrelako jokoetan, «sala juegos»era ere joaten ginen, baina 15 urte izan arte diru barik joaten ginen, dirua Pazkuetan eta gabonetan izaten zelako bakarrik".*

Hauek bazituzten jostailuak eta gehienek bazuten bizikleta eta baloi bat gutxienez *"bizikleta gehienak BHak, neskenak, izaten ziren".* Neskak ez ziren futbolean aritzen eta batek esan digun moduan *"guk denbora soka-saltoan, goman, kromoekin eta tortolosekin pasatzen genuen, eta panpinekin ere bai jakina".*

Oraingo gazteak telebista gehiegi ikusten duela esan ohi da, baina orain 30-40 urte bitartean dabiltzanak, beste gauza batzuk egiten zituzten *"eskolatik irten bezain laister kobazulo batetara, etxe zahar batera edo, kalean edo mendian, baina, hori bai, ia egunero futbolean eta pelotan.*

*10-14 urte bitartean ez genuen telebistarik eta futbol partidu garrantzitsuak zeudenean tabernara joaten ginen telebistatik ikustera".*

### Zertan pasatzen dute aisialdia gaur egungo neska-mutikoek?

| | 1. MAILA 142 haur | 4. MAILA 170 haur | 8. MAILA 256 haur |
|---|---|---|---|
| KATEKESIA | % 89 | % 81 | % 0,7 |
| DANTZA | % 18 | % 15 | % 0,4 |
| KIROLA | % 14 | % 68 | % 55 |
| LUDOTEKA | % 6 | % 8 | - |
| MUSIKA | % 3 | % 41 | % 24 |
| INGELESA | % 1,4 | % 17 | % 26 |
| PARTKUL. | % 0,7 | % 11 | % 25 |

Udaleko Euskara Zerbitzuak Bergarako OHOko iksasleen artean egindako ikerketatik ateratako datuak.

HARATEGIA - URDAITEGIA
Sebastian Imaz
Bildotsa, txahala eta oilazkoak
Harane Erreka, 1
76 32 67 BERGARA

BELENGUA
Taberna
Pintxoak, kafeak...
Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

Mari Carmen
ARRAINDEGIA
Arrain freskoak, izoztuak eta mariskoak
Kruz Gallastegi
☎ 76 15 90 / 76 40 73

TOKI-ONA
Bodegoia-Taberna
Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak
Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

DENA 100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta, 3

BERGARESA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Uriarte, 8 ☎ 76 11 99 / 76 14 27
Faxa: 76 04 77 BERGARA

# IPINTZAKO NAGUSIENDAKO II. FUTBOL TXAPELKETA

## I Taldea

| | | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNTUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurka | Guzt. |
| 1. | A ZE FLAXA | 4 | 4 | 0 | 0 | 9 | 3 | 8 |
| 2. | OGIZUN | 4 | 3 | 0 | 1 | 13 | 4 | 6 |
| 3. | OS JARDINEIROS | 3 | 0 | 2 | 1 | 4 | 5 | 2 |
| 4. | AMOZKIBAR | 3 | 0 | 1 | 2 | 4 | 8 | 1 |
| 5. | PAOK DE SAN JUAN | 3 | 0 | 1 | 2 | 2 | 7 | 1 |

### EMAITZAK

- PAOK DE SAN JUAN-OGIZUN 1-4
- OS JARDINEIROS-P. DE SAN JUAN 1-1
- OGIZUN-A ZE FLAXA 1-2
- OS JARDINEIROS-OGIZUN 0-5

### HURRENGO PARTIDUAK

- AMOZKIBAR-P. DE SAN JUAN. Ostirala 20.30.
- I. TALDEKO 3.a-II. TALDEKO 2.a. Asteazkena 20.30.

## II Taldea

| | | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNTUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurka | Guzt. |
| 1. | AMILOTX | 3 | 2 | 1 | 0 | 8 | 3 | 5 |
| 2. | MONGATXURRA | 3 | 2 | 0 | 1 | 9 | 8 | 5 |
| 3. | ARLOTEAK | 3 | 1 | 1 | 1 | 8 | 5 | 3 |
| 4. | SHAKTALE | 2 | 0 | 2 | 0 | 2 | 2 | 2 |
| 5. | OSINTXU | 3 | 0 | 0 | 3 | 3 | 12 | 0 |

### EMAITZAK

- SHAKTALE-ARLOTEAK 1-1
- AMILOTX-MONGATXURRA 4-2

### HURRENGO PARTIDUAK

- MONGATXURRA-SHAKTALE. Ostirala 18.30.
- ARLOTEAK-AMILOTX. Astelehena 19.30.
- OSINTXU-SHAKTALE. Astelehena 20.30.
- II. TALDEKO 3.a-III. TALDEKO 3.a. Ostirala 19.30.

## III Taldea

| | | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNTUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurka | Guzt. |
| 1. | BILDURBAREK-LAM | 4 | 3 | 1 | 0 | 14 | 2 | 7 |
| 2. | ALTZASU | 3 | 2 | 0 | 1 | 7 | 3 | 4 |
| 3. | EZINLEIKE | 3 | 1 | 1 | 1 | 3 | 5 | 3 |
| 4. | PIKAPIEDRAS | 3 | 1 | 0 | 2 | 4 | 7 | 2 |
| 5. | NAHIKARI | 3 | 0 | 0 | 3 | 2 | 15 | 0 |

### EMAITZAK

- NAHIKARI-EZINLEIKE 0-1
- ALTZASU-NAHIKARI 5-1
- PIKAPIEDRAS-BILDURBAREK LAM 0-2

### HURRENGO PARTIDUAK

- NAHIKARI-PIKAPIEDRAS. Asteartea 19.30.
- EZINLEIKE-ALTZASU. Asteartea 20.30.
- III. TALDEKO 3.a-I. TALDEKO 1.a. Osteguna 19.30.

# Beteranoak

| | | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNTUAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurka | Guzt. |
| 1. | BETI ONA | 3 | 2 | 0 | 1 | 9 | 7 | 4 |
| 2. | TXIPIRON | 3 | 1 | 0 | 2 | 7 | 8 | 2 |
| 3. | OGIZUN | 2 | 1 | 0 | 1 | 3 | 4 | 2 |

## EMAITZAK

- TXIPIRON-OGIZUN 1-2
- TXIPIRON-BETI ONA 6-4

## HURRENGO PARTIDUAK

- BETI ONA-OGIZUN. Ostirala 19.30.
- OGIZUN-TXIPIRON. Asteazkena 19.30.


OGIZUN


SHAKTALE


BILDURBAREK LAM

## KOMENTARIOA


Felix MENDIZABAL

"Dozenerdi talde daude oso politak direnak eta seguruen aurrean ibiliko direnak. Iazko txapelduna, Amilotx, ez dut ikusten iaz bezain ondo, aurrean ibiliko den arren ez dut garaile ikusten. Mongatxurra eta Bildurbarek LAM dira nire faboritoak. Beteranoen artean, Beti Ona da indartsuena. Orokorrean, aurten joan zen urtean baino maila haundiagoa ikusten diot txapelketari, aurtengo ekipoak iazkoak baino hobeak dira, ez dakit zergatik izango den baina horrela da".

## GOLEATZAILEAK

4 gol:
- I. Etxeberria (Mongatxurra).
- Josu Arana (Bildurbarek LAM).

3 gol:
- Manu Diaz (Mongatxurra).
- J.L. Etxaniz (Bildurbarek).
- R. Agirrezabal (Bildurbarek).
- J.M. Alonso (Osintxu).
- Patxi Osa (Pikapiedra).
- I. Unzurrunzaga (A Ze Flaxa).
- Mikel Azkarate (Amilotx).

2 Gol:
- Zangitu (Mongatxurra).
- Blanco (Ogizun).


I. ETXEBERRIA

IPINTZAKO

NAGUSIENDAKO

II. FUTBOL TXAPELKETA

FS Foto Sistema Albéniz

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

✓ Diapositiba errebelatzeak.
✓ Karneterako argazkiak momentuan.
✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

ETXE-AUNDI
Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak
Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubleta 26, BERGARA

# Jolas asko egiten duzu?



**Larraitz Barrenetxea-Arando**
**15 urte, ikaslea**

Bai, pizinetara joaten garenian kartetan, mendian badmintonean, futbolean ere bai...



**Iñaki Goikoetxea**
**18 urte, ikaslea**

Kiroletan batez ere. Orain Herri Olinpiadetan parte hartuko dugu. Bestelako jokorik ez; kartetan noizean behin...



**Ramon Valencia**
**61 urte, jubilatua**

Kartetan. Kiroletan orain batere ez. Lehen bai, pelotan asko jokatzen genuen.



**Paqui Gimbert**
**32 urte, etxekoandra**

Ez, ezertan. Denbora librea nola pasatzen dudan? Paseatzen batez ere, jokoak ez zaizkit gustatzen.

Biltoki
BETI ZURE ZERBITZURA!

xey
SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.
SAN PEDRO PLAZA Z/G
☎ 76 34 00

PHILIPS
TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK, HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK, 100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6
☎ 76 25 96

dekorazioa
GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK, ALFOMBRAK, LARRUZKO SOFAK, DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK
SAN MARTIN PLAZA, 2
☎ 76 43 51



## Krimena ala zigorra

Zer gertatzen da Bosnia-Herzegovinan? Zer egiten du Europak, eta zer guk arrazoigabekeria hau gerarazteko?

Denek iparra galdu duten honetan, baita Owenek berak ere (oraintsu bonbardaketa mugatuak eskatuz), bake egitasanez eta "Vance-Owen"ez ihardutea xelebrea da.

Gaur egun argi dago Europa ez dagoela gatazkari irtenbide "zuzena" ematearen alde. Beti jokatu du irabazien interesen alde eta ez printzipioen alde.

Ondorioa begibistan dago: gure gobernuak, seguritateguneen plana onartzearekin lurraldeak indarkeria bidez eskuratzeari eta arraza garbiketaren ondorioei oneritzia eman die. Baina erosoagoa da Bosnia desagertzea eta Serbia eta Croaciak opila banatzea, azken hauek bideratzen saiatu eta, behin-betikoa izango ote den jakin gabe ere, irtenbide baketsua bilatzea baino.

Eta zertan dabil Espainia gerra-errefuxiatuei bisatuak eskatzen? Eta zertan hiritarrok SOS BALKANESek manifestaldira deitu eta 50 lagun besterik agurtzen ez badira, eta gutxienez erdiak bosniar errefuxiatuak?

Gure politikoek ez dute erantzuten baina hiritrrok aurpegiratu ere ez, badirudi berdin zaigula zer gertatu...

**Marta Moral**



## Mestizu

"Uuh-uuh-uuh, kolore biziak arrazakeriaren kontra" dio Negu Gorriak taldeko azkenengo kantak. Spike Lee "Malcolm X" bere filmarekin; Michael Jackson ere, urte hauetan bere azala zuritu nahian izan arren, arrazakeria eta xenofobiaren aurka "Black and white" abestiarekin azaldu zen. Alemanian, Estatu Batuetan eta Bosnia Herzegovian bizi diren ekintza arrazistek, azkenengoak esatekotan, aspaldiko eztabaida honi eta aspaldiko protagonistei gaurkotasun haundiago bat ematen diete. Martin Luther King ondo ezagutzen bagenuen ere, Malcolm Xren figura, ostera, gogorkeriaren apostu bezala aurkezten ziguten. Baina Spike Leeren filmean Malcolm X bere lehen pausuetan, zuriek menperatzen zuten EEBBtan beltzen aldeko arrazista bazen ere (zatiketa defendatzen zuen), azkenean bere pentsakera aldatzen joan zen. Meka, musulmanen toki sakratua, bisitatu eta arraza eta hizkuntza guztiak elkarrekin bizi daitezkeela ikusi zuen. Zuritik beltzera azkarregi pasatzen gera, grisak daudela ikusi gabe. Malcolmen barruko sinistea indartsua izanik, aldatzeko prest zegoen X jauna.

Serbiarrak eta kroaziarrak Bosnia-Herzegovina, lehen elkarbizitzaren adibide, hiru estatu etnikotan zatitzeko ados daude. Integrazioa ez al da aberasgarriagoa? "Julio Kageta" musika taldearekin bat nator. "Mestizu" bere azken lanean, gure inguruan dagoen hezkuntz eta jatorrien barietatea defendatzen dute. Hemen inor baztertzeko ez gaude, mestizu izanez, askoz aberatsagoak gara.

**German Larrañaga**

ESPOLON
School of English
BERGARA
Ibargarai, 31
☎ 76 03 53

**AURREMATRIKULAK:**
• 93-94 ikasturtea.
**UDAKO IKASTARO TRINKOAK**
• Uztailaren 1etik 23ra.
**INFORMAZIOA:**
• Astelehenetik ostegunera: 10.00-12.30
• Ostiraletan: 10.00-12.30 eta 14.30-19.00.
Ibargarai 31, Barruko plaza. ☎ 76 03 53

Siaska
Dena zure haurrarentzako
Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

FANCY
GAZTEEN MODA!
Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

JOSE LUIS eta MIKEL
URTEAGA, 6
Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa. Etxebarruen dekorazioa
☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17

Beheko Taberna
*Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.*
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi, BERGARA

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80 76 06 37

LILURA
EDERTZE INSTITUTUA
Bidekurutzeta, 7
☎ 76 31 71
BERGARA

ZAPELAITZ
Taberna
Eguneko menuak astelehenetik ostiralera
San Lorentzo 25. BERGARA



### ❑ Gutxituen kirol jaia

Oso arrakastatsua suertatu zen Deba Garaiko kirol zerbitzuek larunbatean antolatutako **Denontzako Kirol Jaia**. Mota askotako 70 elbarritu inguru bildu ziren Agorrosinen jai honen lehen edizioan eta guztiek beren entrenamendu eta lanaren emaitzak erakutsi zituzten proba ezberdinetan: lasterketak, prezisiozko jokuak, slaloma, arku tiraketa..., etab. luze bat. Probak ez ziren konpetizio erara jokatu, azken batean guztiek urrezko domina merezi dute eta.



### ❑ Urrezko eztaiak

**Maria Arana** eta **Roman Igarza** bergararrek (argazkian) beren urrezko eztaiak beteko dituzte larunbatean, ekainak 26. Santa Marinan ezkondu ziren orain 50 urte eta beren alaba **Itziar Igarzak** eta **Fernando Markinak** ere zilarrezko eztaiak egin berri dituzte (maiatzak 18an). Zelebrazio bikoitza beraz San Antonio egunean egin zutena. San Pedron meza entzun ondoren familiarteko bazkaria izan zuten Lasa Jatetxean. Zorionak lauroi!!

PINTURAS BERGARA, S.L.
PB
Aranerreka, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta Faxa: 76 11 40
• INDUSTRIARAKO PINTURAK • APAINKETARAKO PINTURAK •
• GARBIKETAK • ERROTULOAK • Etab...

## ❑ Margoak Plazan



Ostegunean hasi ziren jartzen **Manu Muniategi** bergarar margolariak, Udaletxeko obrak direla eta, Plazan dagoen horma apaintzeko egindako koadroak. Hirigintza Batzordeak, **Mendia Bizirik** taldeari utzi zion berau *dotoretzearen* ardura eta bergarar ekolojistek, berriz, Manurengana jo zuten. Obrak amaitu bitartean, 16 bat koadrotan, Bergarako hainbat toki Plazan ikusteko aukera duzue. Uda heldu bezain laister, arte-lanak ere kalean...



## ❑ Kinto bazkaria

**1933**an jaio eta aurten **60 urte** betetzen dituzten bergararrek beren anaiarteko eguna ospatu zuten igandean. Guztira, 65 lagun inguru bildu ziren; lehenbizi hildakoen oroimenezko meza entzun eta jarraian bazkaria egin zuten Lasa jatetxean, elkarren berri izan eta lagunartean egun ederra igaroz. Bazkal aurretik, **BERRIGARA**ko kamarak erretratatu zituen. Datorren urtera arte behintzat, gorde beharreko argazkia...

## Zertan dihardute ba?

### FERMIN MENDIZABAL




Industria Injenieritza eta Enpresa Administraziorako Master IS ikasketak burutu dituen 47 urteko donostiar hau CANDY-MAYC lantegiko Zuzendari Nagusi izendatu dute.

### JOSUREN MURGIZU




Informazio Zientzietan lizentziatutako 37 urteko bergarar hau astebetez Kultur Etxeko kontserjea izan dugu Xabier Azkarateren partez. Uztailean ere 20 bat egunez konserje egongo da Errotalden.

BBA

# BERGARA BOLTSAK

✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
✓ Denetariko konfekzio industriala
✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1, Tfnoa: 76 57 69 Faxa: (943) 76 55 66 BERGARA

# Umore giroan

## ¡Eso se hincha!

Bi pertsona, oso asarratuta, burrukan hasi ziran. An inguruan agertzen zan Marino, naiz eta berak burrukarik nai ez. Alperrik baiña. Arek bixak eskuetara heldu ziran, eta batak besakada aundi bat emon zetsan bestiari arpegixan. Kolpia hartu zebanak:

- ¡Esto no queda así!

Eta Marinok:

- No, eso se hinchará.

## Iru anai mutil-zar

Iru anai mutil-zar alkarrekin bizi ziran Plaentxian. Euretako bat oso gaizki jarri zan. Orduan beste bixak, sukaldian, asi ziran gertatzen entierro kontuak...

- "Primerisimakua" eiñ biarko jetsagu -ziñuan batak.

- Bai eta nork pagau biar jok! -esan zetsan bestiak-, "segunda" itxurazko bat be ez dok gitxi.

- Ara ba, -diño bestiak-, eztagok diferentzia haundirik, eta orduan "tercera" bat naikua dok.

Itxura danez, gaixuak entzun zebazen anaien asmuak, eta me-me deitxu zetsen esateko:

- Zatozie ona! Badakizue zer pentsau doten? Ekarri eidazuez zapatak eta neu juango nok kanposantura.

*Pedro Zelaia*

# ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



Ameslariak, orain dela urte t'erdi Kilometroak zela eta antolatutako jailadian.

## AMESLARIAK ETA URRETXINDORRAK KANTU LEHIAKETAN SARITUAK

Arrakasta haundiz jokatu zen joan zen asteartean "Radio Juventud-La Voz de Eibar"rek antolatutako Euskal Kantu Lehiaketaren azken fasea.

Taldeen sailean honako hauek hartu zuten parte: Bergarako "Ameslariak" eta "Urretxindorrak", Pasai Antxoko "Oskarbi", Ondarroako "Argoitia Anai-arrebak" eta "Beti Alai" taldeak, Donostiako "Enarak", Pasai Donibaneko "Erlak" bikotea.

Lehen saria, Aurrezki Kutxa Probintzialaren trofeoa eta 15.000 pta., Pasai Antxoko "Oskarbi" taldeak bereganatu zuen. Bigarrena, Eibarko Udalaren trofeoa eta 10.000 pta., Bergarako "Ameslariak" taldeak lortu zuen eta hirugarrena ere, 5.000 pta. eta Radio Juventud-en saria, Bergarara joan zen, "Urretxindorrak" taldearen eskuetara. 1968ko ekaina. La Voz de España.

## MISS VASCONGADAS

Atzo iluntzean, Real Club de Tenis-en aretoan Miss Vascongadas-en aukeraketa egin zen. Lau emakume lirain aurkeztu ziren: bi bilbotar, Bergarar bat (Arantxa Basañez Torres) eta donostiar bat. María Isabel Clemente Orue donostiarra izan zen irabazlea. Lehiaketa hau datorren hilean Valentzian izango den Miss España lehiaketarako baliagarri da eta "Miss" aldizkariak egin du aukeraketa. 1968-VI-30. EL Diario Vasco.

Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Goenagak hemerotekatik bildutako notiziak

IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

**Magisterio Eskola honek zera jakinerazten du:**

**1993-94 ikasturterako aurreinskripzio-epea zabalik dagoela.**

**ESPEZIALITATEAK:**
- **Haur-Eskola**
- **Euskal Filologia**
- **Ingles Filologia**

**INFORMAZIOA:**
**Irakasle Eskola**
**☎ 943 / 71 41 57**

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

BERGARA
Karrozeria
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Zumelaga

JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21

ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



# GALDE DEBALDE

## IMANOL CERDEIRA

Telesforo Monzonen gurasoak ezkondu zirenean landatu zen Olaso-Dorreko magnolioa. Horixe, azkenengo Galde Debaldeko erantzun zuzena.

IMANOL CERDEIRAk erantzun zuzena jarri du eta bera dugu aste honetako irabazlea. Berarentzat, ARGAZKIk emandako saria.
ZORIONAK !!
Eta besteok segi asmatzen! Animo!!

HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak
Matxiategi, 4. 76 37 53

Elektragailuak, TB, bideoak, HIFI aparailuak.
Matxiategi, 3. 76 12 22

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24 , Tfnoa: 76 10 16



IMANOL CERDEIRAk jaso du aste honetan ARGAZKIk emandako saria.


**Zubikua**

**JANTZIDENDA**

**Barrenkale 24 , Tfnoa: 76 10 16**


Hurrengo Galde Debaldeko saria ZUBIKUAk emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

Konturatu barik heldu dira berriz San Pedro eta San Martzialak, bergarar askok herriko beste edozein jai baino gustokoagoak dituztenak. San Martzial jaia ospatzeko hainbat ohitura gorde dira antzinatik datozenak: letaniak, gurdi eta barrikarekin batera igoera, erromeria, bertan bazkaltzea, deklarazioak egiteko ere egun ezin hobea izaten delarik, eta, nola ez, milaka lagunek egiten duten "bajadia"

San Martzialen bertan bi eraikuntza daude, biak ere aspaldikoak. Bata eliza da, azpitik irtetzen duen milagrosoarekin, eta bestea eliza alboan dagoen etxetxoa.

## Zein izen du San Martzial elizaren alboan dagoen etxetxoak?

________________________________________

izena ________ abizena ________ telefonoa ________

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

# Eusebio II eta Toki-Eder futbitoko liga eta kopako txapeldunak

Eusebio II eta Toki-Eder izan dira Bergara K.E.ak antolatutako futbito txapelketaren liga eta kopa txapeldunak.

Larunbatean, Toki-Ederrek 6 eta 1 irabazi zion Os jardineiros taldeari kopako finalean eta igandean, berriz, Eusebio II 4 eta 3 nagusitu zitzaion Usoa taldeari ligako finalean. Partidua hirunako berdinketarekin amaitu zen baina 5 minututako bigarren luzapenean Eusebio II taldeak liga bigarren aldiz jarraian irabaztea suposatuko zion gola lortu zuen. Aurretik, Toki-Ederrek 3. postua eskuratu zuen Madurari 8 eta 3 irabazi ondoren.

Ligako final ostean sari banaketa egin zen eta talde bakoitzak jasotako trofeoez gain Enrique Nieto Bergara K.E.ko jokalari ohiak golegile onenaren saria jaso zuen.

Aurtengo edizioa bosgarrena genuen eta 42 taldek (20 lehen mailan eta 22 bigarrenean) hartu dute parte. Datorren urteari begira, honako talde hauek lortu dute bigarren mailatik lehenengora igotzea: Kriterium, Os Jardineiros, Ezinleike, OZ 4 eta Shaktale. Bigarrenera, berriz, Guadalest, Etxagi, A ze flaxa eta Labegaraieta jeitsiko dira.

Hurrengo denboraldiko txapelketa urrian jarriko da martxan eta, antolaketa lanetan egon den taldean *bajak* izango direnez, interesatuei parte hartzera dei egiten zaie. Beraz, badakizue.



Eusebio II taldeak irabazi du ligako txapelketa.



Toki-Eder, kopako txapelduna izateaz gain, ligan 3. postuan sailkatu zen.




# Elgetako finalera

Iker Muruamendiaraz bergarar pelotari gazteak Elgetako 4 t´erdiko txapelketaren kadete finala jokatuko du, asteartean Larraia naparra kanporatu ondoren. Muruamendiaraz (ezkerrean) 9 eta 7ko emaitzarekin markagailuan aurretik zenean, Larraia erretiratu egin zen eta beraz, uztailaren 9an finalean izango da Zearra-Matxain kanporaketako irabazlearen aurka. Reyes Akoitiaren esanetan, *"finala oso zaila izango da baina Iker oso ondo dabil eta baditugu irabazteko esperantzak"*. Imaz eta Nagorek 23 urtez azpiko finala jokatuko dute uztailaren 3an.

Zure konfidantzako denda

LASAGABASTER

Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE



*Pazkuetako enbolatuak. 1963.*

Jendez beteta egon omen da zezen plaza enbolatuak ikusten aurtengo Pazkuetan baina gehienak ikusle izan omen dira. Honako argazki honetan ere hala ikusten da baina asko dira hareatan daudenak ere.

Erretratua orain dela 30 urtekoa da, 1963koa. Aurreko urteetan, 1960 eta 1961an izan ziren txekorketak baina 63an ez. Azkenengo txekorketa, berriz, 1965ean izan zen aurtengora arte.

Hemen ikusten den zezen-plaza Artetxeren etxe parean zegoen, Beheko Estazioaren parean aparkalekua dagoen tokian. Orain botata dago atzean agertzen den etxe hura baina tokiak eusten dio "Zezen Plaza" izenari.

Aurre-aurrean ageri dena Miguel Arregi "Kostei" duzue. Gainontzean, hor duzue ariketa polita: ea zeuen burua aurkitzen duzuen.

*Estepan Plazaola*


ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA
Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA


JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

## ETXEBIZITZA

Jacan udarako **apartamentua** alokatzen da. ☎ 76 43 98.

Garaje **bikoitza** alokairuan Burdiñaten. ☎ 76 57 69 / 76 13 23.

**Pisua salgai** Koldo Eleizalden. ☎ 76 42 10.

**Matrimonio logela bateko altzariak salgai.** ☎ 76 44 27 (gauez).

**Garajea salgai** Ozaetan ☎ 76 56 94.

**Pisua salgai** San Lorentzo 1ean. ☎ 76 27 35.

**Garajea salgai** Bolun **(1.200.000)** ☎ 76 25 38

**Eroski gainean 62 m karratuko pisua salgai.** ☎ 72 00 66 / 81 23 17.

## DENETARIK

**Bi mahai eder salgai.** Egurrezkoa bat eta kristalezkoa bestea. ☎ 76 35 56.

**Ingelesezko klaseak** ematen ditut. ☎ 76 26 63.

**Master System II** kontsola salgai. ☎ 76 03 31.

**Citroen AX SS-AH salgai.** Berritua. ☎ 78 33 09.

**Renault Clio 16 V. SS-AM salgai.** ☎ 76 25 91.

**SUZUKI DR-BIG 74 cc salgai.** ☎ 76 50 67.

**BMW** serie 3 **kotxea salgai.** Merke. ☎ 76 18 65.

Asteburuetan **Madrilera** joan-etorria egiteko laguna behar dut ☎ 79 53 12.

Datorren ikasturtean **Donostiara joan etorria** egunero egiteko autobusa bete nahian gabiltza. ☎ 79 17 72 / 76 51 75.

**Kitarra klaseak** hartuko nituzke. ☎ 76 45 16.

**Nintendo bat salgai.** 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

**Ume kotxe** bat salgai. ☎ 76 02 00.

MOBYLETTE CADY **motor bat salgai.** ☎ 76 54 73 (lan orduetan).

**Skiak** (1.40 zm) eta **botak** (35), saltzen ditut. Prezio ona. ☎ 76 21 64.

Bigarren eskuko **bizikleta estatiko** bat erosiko nuke ☎ 76 50 58.

**Paseozko bizikleta** (bolero) **salgai**. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

Etxeko gela bikoitz bateko **altzariak salgai.** Egoera onean. ☎ 76 18 61.

**Motorrean** ibiltzeko **kasko integrala** erosiko nuke. ☎ 76 10 04.

Uztailean eta abuztuan **OHO, BBB** eta **UBI klaseak** emango ditut. ☎ 76 21 52 (Eider).

4 metroko **ADRIA karabana salgai.** 4-5 pertsonarentzako. Prezio onean. ☎ 76 49 14 (gauez).

**Doberman** arrazako **txakur emea salgai.** Belarriak eta buztana mozturik ditu. **40.000** pzta. ☎ 76 57 67.

**Nintendo** bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

**Renault Super 5** kotxea salgai. BI-AL matrikula. ☎ 76 52 90.

**OPEL CORSA City, BI-AK salgai.** ☎ 92-6201918 (Gorka). Lan orduetan.

## LANA

**O.H.O.**ko klaseak emango nituzke uztailean. ☎ 76 19 59.

Bi lagunek **propaganda** etxez-etxe **banatuko** lukete. ☎ 76 39 86 (Iban).

**Etxeak garbitu** edota pertsonak zaindulo nituzke. ☎ 76 50 63 (Marijo).

Emakumezko batek **haurrak zaindu** eta **etxeko lanak** egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

**Euskarazko klaseak** ematen ditut. Maila guztiak. ☎ 70 12 71.

**Neska** euskaldun bat behar dut etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. ☎ 76 52 90.

## Hildakoak

*Tomas Barrero Barrero*
ekainak 18, 80 urte

## Jaiotakoak

*Jabier Gallastegi Agirre*
ekainak 11
*Markel Casttels Barrenetxea-Arando*
ekainak 15

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak
**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**
ANGIOZAR ☎ 76 55 70

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA




BEROGAILU,
GAS
eta
ITURGINTZA
AZTERLANAK

BAINU
DISEINAKETA

ZABETX
INSTALAZIOAK

Masterreka, 14 BERGARA ☎ 76 54 14

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



FAGOR

SUKALDERAKO ALTZARIAK

AENOR
Produktu Ziurtifikatua

6 URTEKO GARANTIA